

## 2. SEGMENTAZIOA

Gure zerbitzua printzipalki pertsona nagusientzako antolatuta dago. Baina, egia da segmentazioari dagokionez, agureaz gain bere senidei (seme-alabak edo bilobak esaterako) ere zuzenduta dagoela. Jakinik, nagusi asko oso baliogabetuta daudela eta familiarren laguntzarekin emango dutela izena. Hauek baitira bezero nagusiak edo segurazki tramiteak burutuko dituztenak.

Gure bezero motaren ezaugarri nagusiak hurrengoak dira. Ezaugarri bakoitzaren barruan irizpide desberdinak egon daitezke, gure segmentazioa deskribatuko dutenak eta horregatik gure zerbitzua bideratuta egongo da bezeroen ezaugarrietara.

Hasteko, geografikoki bilatzen ditugun bezeroak gure hirikoak dira (Bilbo) , horrez gain, adina eta generoaren arabera pertsona nagusiak eta batez ere jubilatuak bilatzen ditugu generoa edozein dela ere (emakume zein gizon). Gero, ezaugarri psikografikoen ikuspuntutik baldintza bakarra daukagu; ez izatea bizitzeko arazo larriak edo jarduerak egiten uzten ez dizun gaixotasunik. Mobilitate arazoak izatekotan, ekintzak oso desberdinak izango lirateke edo bestalde euren etxebizitzan egingo genituzke. Azkenik, pszioekonomiari buruz, bilatzen ditugun bezeroak 1000€-ko pentsioa izan beharko dute eta gizarte maila edo statusaren arabera ez dugu segmentazioarik egingo. Horrekin batera, erosketen jokabidearen arabera aukera desberdinak dauzkagu gure bezeroentzako, telefono zenbakiz deitu edota webgunetik idatzi.